#bikain10urte

# Bikain
## 10 URTE
EUSKARAREN
KALITATE ZIURTAGIRIA

EU ES

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO




GARAPENAREN
LENGOAIA




ZORIONAK!



# 10 URTE

BIKAIN

**01**

Ezaguna da euskal erakundeek betidanik erakutsi izan duten izaera berritzailea eta lehiakorra. Izaera berritzaile hori, gainera, ez da mugatu kudeaketa-moldeak, baliabide teknologikoak, tresneria edo azpiegitura berritzera. Erakunde edo enpresa batzuek eredu propio baten alde egin, eta beren lana, irudia edota produktua nahiz zerbitzua euskaraz (ere) lantzera jo dute, balio erantsia emango diela iritzita eta hizkuntza-eskubideei zor zaien begirunea kontuan izanik. Kanpoko agente baten **ikuspegia eta kontrastea** jasotzeak aurrera egiten lagunduko diela sinesten dugu, eta kanpoko ikuspegi hau jaso ondoren, egindako lana **aitortzea** ere garrantzitsua dela uste dugu, bezeroen, kanpoko zein barneko gainerako eragileen aurrean erakutsi dezaten.

Gaur egun arlo sozio-ekonomikoan ohikoak dira kudeaketa aurreratua, kalitatea, ingurumena, gizarte-erantzukizuna, genero-berdintasuna, lan-arriskuen prebentzioa edota berrikuntza kudeatzeko sortu diren jardun-ereduak. Eredu horien ezaugarrietako bat da, esaterako, **zehar-lerroak diren gaiak modu integratu batean kudeatzea**. Egun, lan-munduan euskara ere **modu integratuan** kudeatzen hasiak dira erakunde batzuk, eta BIKAIN egiteko modu berri hauei egokituz joan da.

BIKAIN egitasmoa 2007an sortu eta 2008an inplementatu zen lehenengoz. Hamar urte hauetan ia 400 izan dira egindako kanpo-ebaluazioak.

**10 URTE**

**10 URTE** bete ditu BIKAINek.

**10 URTE** euskararen erabilera areagotu nahi duten erakundeei ekarpen kualifikatuak ematen.

**10 URTE** erakundeetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzen.

**10 URTE** erakundeek euskararen normalizazioan egindako lana aitortzen.

**10 URTE** euskarak une bakoitzean izan dituen erronkei aurre egiten.

**10 URTE** ZURE ONDOAN, EUSKARAK AURRERA EGIN DEZAN!

10

10
URTE
BIKAIN
01

# Hazten doan komunitatea

2008
31
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 7
TARTEKOA: 17
GORENA: 7

2009
27
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 6
TARTEKOA: 9
GORENA: 12

2010
20
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 5
TARTEKOA: 7
GORENA: 8

2011
20
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 7
TARTEKOA: 7
GORENA: 6

2012
29
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 7
TARTEKOA: 13
GORENA: 9

ERSO... ...E EGOITZ
USKALTEGIA, ... ...TZA SAILA (EB
IARIEN ELKARGO OF... ...TEC / CENTRO KURSA
O ORDEZKARITZA) / COLEGIO ... ...ES SUKIA ERAIKUNTZAK S.A
EBAGOIENEKO ERAKUNDE SANITARIO INTE... ...DIGITALAK / DOBERA EUSKARA ELK
EZULO ALDIZKARIA / DONOSTIALDEA ERAKUNDE SANITARIO... ...IKUSENTZUNEZKOAK S.A. / EDE FUNDAZIOA / E
EKIALDEBUS S.L. / EKIN AUTOAK S.A.L. / EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOA / ELAY / ELDUAIEN HIZKUNTZA ESKOLA / ELEKA INGENIARITZA L
KASTETXEA / ELKARGI E.G.E. (DONOSTIAKO EGOITZA) / ELORRIOKO TXINTXIRRI IKASTOLA / EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA / EMUN KOOP. E.
LKARTEA (AMARAKO BULEGOA ETA EDUARDO ZUGAZA FORMAZIO-ZENTROA) / ERROITZ S.L. / ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO-
USKARAZ KOOP. (AEK) / EUSKO IKASKUNTZAREN ASMOZ FUNDAZIOA / EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO / EUSKO TRENBIDEAK
DERLAN POWERTRAIN / FAGOR EDERLAN, S.COOP (BURDINAZKO PORTAMANGETAK) / FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS KOOP. E. (HOTZAREN
EGOZIOA) / FAGOR ELECTRÓNICA KOOP. E. / FAGOR INDUSTRIAL KOOP. E. / FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A. / FUNDACIO
TEZURI ZENTROA / GERTEK, S.A. / GESTIÓN DEL CONOCIMIENTO ITZARRI S.L. / GEU GASTEIZ EUSKALDUNA ELKARTEA / GIPUZKOA DONO
LDUNDIA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUA (GIPUZKOAKO OGASUNA) / GIPUZKOAKO FORU AL
AK FEDERAZIOA / GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA / GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA FUNDAZIOA-AQUARIUM DONOSTIA / GIROA S.A.U / GK
NTEGRATUA / GOIERRIALDEA, S.L. / GOIERRIKO HEDABIDEAK S.L. / GOIHERRIKO IKUSKARI SL / GOIMEK SCOOP / GOIZPER / GOXARA S.L. / G
IVOS / GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA / GUREAK BERDEA S.L.U. / GUREAK GARBITASUNA S.L.U. / GUREAK ZERBITZUANITZAK
ILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA / HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA S.A. / HIRUKA KOOPERATIBA ELKARTEA / HIRUKIDE IKASTETXE
IDEKO KOOP E / IEFPS TOLOSALDEA GLHBI / IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA-K6 GESTIÓN CULTURAL S.L. / IK4-IKERLAN / IKAZTEGIETAKO U
L / IPAR KUTXA / IRAURGI IKASTETXEA / IRIZAR S. COOP. / IRURAKO UDALA / ITP, S.A. / ITZARRI AISIA SL / IVAP (HERRI ARDURALARITZAREN
LKARTEA-SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS INFORMÁTICOS / J. M. VIGIOLA, S.A. / JESUS MARIA DE LEIZAOLA FUNDAZIOA / JMA ALEJANDRO
IARI IKASTETXEA / KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEA / KARMENGO AMA IKASTETXEA / KIDE KOOP E / KIROL MANAGEMENT S.L.U. / KURU
RESIDUOS S.L. / LAGUN ARO ASEGURUAK / LANKOR MUNTAIA INTEGRALAK, S.L. / LARRIALDIAK KOOP. E. / LATZ S. COOP. / LAUKA CENTRO D
KASTETXEA / LKS INGENIERIA S.COOP / LKS, KOOP. E / LRK EMERGENTZIAK KOOP. E. / MAIER, S.COOP / MAINATZEN SL / MAIZPIDE KOOPERA
N MÁQUINA HERRAMIENTA (IMH) / MANUEL DE LARRAMENDI IKASTETXEA / MARAMARA TALDEAREN HIZKUNTZA ZERBITZUAK S.L. / MARIA
USKALDUNON ELKARTEA / METRO BILBAO, S. A. / MIGUEL ALTUNA LHII / MIRUGAIN SL / MIXER (BILBO ETA DONOSTIA) / MONDRAGON ASS
GENTZIA / OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK S.L. / OLABIDE IKASTOLA / ONA PRES S. COOP. / OÑATIKO UDALA / ORERETA IKASTOLA KOOP. E. / O
AKAO USANSOLO OSPITALEA / OSAKIDETZA-GIPUZKOA MENDEBALDEKO ESKUALDEA / OSAKIDETZA-GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SA
E-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA / OTARI INGENIERÍA DEL AGUA, S.L. / PASAIAKO PORTUKO AGINTARITZA-AUTORIDAD PO
UNTUEUS FUNDAZIOA / R.M. AZKUE IKASTOLA / RADIO SEGURA SA / SAGARDOETXEA, SAGARDOAREN MUSEOA, SAGARDOAREN LURRALDEA
IARINA (OSAKIDETZA) / SERBITZU ELKARTEA S.L. / SOCIEDAD HISPÁNICA DE DESARROLLO S.A., ALCAMPO OIARTZUN / SOLLUBE AUTOESKOL
.A. / ST3- ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN Y FORTALECIMIENTO DEL TERCER SECTOR / SUSPERGINTZA ELKARTEA / T. ARANZADI IKAST
XORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA / TRANSPORTES PESA, S.A. / TSST TRANVIA SAN SEBASTIAN TOLOSA S.A. / TTAKUN KULTUR
I EUSKALTEGIA) / UDARREGI IKASTOLA I.K.E. / UHINA MATT SL / ULIBARRI EUSKALTEGIA / ULMA CYE, S.COOP / UNI-TRAVEL AUTOCARES / UN
.L. / UROLALDEKO KOMUNIKABIDEAK SL / URRUTIA EDARIAK SL / UZTARTZEN EUSKARA ELKARTEA / VISESA / XORATURIKAN S.L. / ZAINTZ
IURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE S.A. / ZUBIMUSU IKASTOLA KOOP ELK / ZUGAZTEL, S

# Hamar urteko ibilbidean **359** ziurtagiri banatu dira EAEko **330** erakunderen artean. Guztira, **68.000** langile.

2013
39
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 12
TARTEKOA: 17
GORENA: 10

2014
40
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 7
TARTEKOA: 21
GORENA: 12

2015
65
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 4
TARTEKOA: 20
GORENA: 41

2016
53
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 11
TARTEKOA: 23
GORENA: 19

2017
35
ziurtagiri
-
OINARRIZKOA: 2
TARTEKOA: 17
GORENA: 16

ZU GIZAKULTURALAK / ALTU
ARTEA / ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATU
ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA KOOP. E. / ASEPEYO, MUTUA (TOLOSA) / AS
ELKARTEA / ATOAN KOOP. E. / AULESTIKO UDALA / AURTEN BAI FUNDAZIOA / AUTOBUSES CUA
N ALKARTEA. LANKOR, S.L. / AZARO FUNDAZIOA / AZKUE FUNDAZIOA / AZPEITIKO UDALA / AZTERTZEN SERVICIOS
BERMEOKO UDALA / BERRIZKO UDALA / BIDASOA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA / BIDEGINTZA PARA LA PROMOCIÓN DEL DESARROLL
A) / BIHOTZ GAZTEA IKASTOLA / BILBAO BIZKAIA KUTXA (ZERBITZU ZENTRALAK) / BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK S.A. / BILBO ZAHARR
ALUAZIO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUAREN MENDEKOTASUNAREN EBALUAZIORAKO ETA ORIENTAZIORAKO ATALA) / BIZKAIKO INDUSTRI INGI
AL-KURSAAL ELKARGUNEA S.A. / CENTROS COMERCIALES CARREFOUR S.A. / CIKAUTXO S. COOP. / CLARET IKASTOLA / CLECE S.A. (EUSKAD
. / COOPERATIVA DE ENSEÑANZA KIRIKIÑO / COPRECI S. COOP. / DANOBAT SCL / DBUS / DEBABARRENA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ARTEA / DOBLE SENTIDO (INVESCO 2000) / DONOSTIA KIROLA / DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.M. / DONOSTIAKO KOMUNIKABIDEAK E.M.-GA
EDERFIL BECKER KOOP. E. / EDERTEK S. COOP. / EGA MASTER S. A. / EIBARKO UDALA / EIKA KOOP. E. / EKIA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL, SL
LINGUISTIKOA S.L. / ELGOIBAR IKASTOLA / ELGOIBARKO IZARRA EUSKALTZALEON TOPAGUNEA ELKARTEA / ELGOIBARKO UDALA / ELKAR HE
/ ENCARTACIONES S.A. / ENEA ESTRATEGIAS PARA LA SOSTENIBILIDAD S.L. / EROSKI (EGOITZA NAGUSIA) / ERRENTERIAKO UDALA / ERROA
BEGOÑAKO ANDRA MARI / ETEO (MU ENPRESAGINTZA, S. COOP) / EUSKAL EDITOREA S.L. / EUSKALIT / EUSKALTEL S.A. (EGOITZA NAGUSIA)
FFCC VASCOS, S.A.U. / FAGOR ARRASATE S. COOP. / FAGOR AUTOMATION KOOP.E. / FAGOR EDERLAN KOOP. E. (BULEGO OROKORRAK) / FAGO
NEGOZIOA) / FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS KOOP. E. (ZERBITZU ZENTRALAK) / FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS KOOP. ELKARTEA (EGOSKET
ÓN HAZI FUNDAZIOA / GAIKER- IK4 / GARBIALDI SAL / GASTEIZKO UDALA (GIZARTE ETXEEN ZERBITZUA) / GAZTETXO ESKOLA / GEROZERLA
OSTIA KUTXA (ZERBITZU ZENTRALAK) / GIPUZKOAKO EMERGENTZIAK UTE / GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA / GIPUZKOAKO FOR
LDUNDIA-HAUR ETA GAZTEEN ZUZENDARITZA NAGUSIA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KIROL ZUZENDARITZA / GIPUZKOAKO HERRI KIRO
KN DRIVELINE LEGAZPI / GMSM MEDIOAMBIENTE S.A / GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK / GOIERRI-UROLA GARAIKO ERAKUNDE SANITARI
SR (GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES) KOOP. ELK. / GSR DEBAGOIENA. LEGAZPIKO SANTIKUTZ EGOITZA / GUEDAN SERVICIOS DEPOR
S.L.U. / HAURRESKOLAK PARTZUERGOA / HERRITAR BERRI S.L. / HETEL HEZIKETA TEKNIKOKO ELKARTEA / HEZI ETA IKASI, S.L. / HEZKUNTZ
A (TOLOSA) / HORBEL SOZIETATE KOOPERATIBOA / HUHEZI KOOP. E. / IBAIZABAL IKASTOLA KOOP. / IBAR EZKERRA IKASTOLA POLITEKNIKO
UDALA / IKT S.A. / ILARKI ELKARGOA / INFO-AIARALDEA KULTURA ETA KOMUNIKAZIOA ELKARTEA / INGURUMENA ADVANCED TECHNOLOGIE
EUSKAL ERAKUNDEA) / IZAN INTERVENCIÓN FAMILIAR Y COMUNITARIA, S.L. / IZENADUBA BASOA / IZFE S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FOR
ALTUNA S.L.U. / JUAN MATEO ZABALA EUSKALTEGIA / K1 EKOPAISAIA, S.L.L. / KALITATEA FUNDAZIOA / KARITATE ALABAK-BEGOÑAKO ANDR
TZIAGA IKASTOLA / LABORAL KUTXA / LABORAL KUTXA (URRUNEKO BANKA) / LABORAL PASAIA-UZTURRE 2003 S.L. / LABORATORIO DE AGUA
DE ESTUDIOS E INTERVENCIONES PSICOLÓGICAS S.L. / LAURO IKASTOLA KOOP. E. / LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK E.M. / LEKEITIO HERI
ATIBA ELKARTEA / MAKINA ERREMINTAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA/FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNIC
ETA JOSE IKASTETXEA / MATIA FUNDAZIOA. IZA ZENTROA / MATIA FUNDAZIOKO FRAISORO ZENTROA / MATZ-ERREKA, S.COOP / MAXIXATZE
SEMBLY KOOP. E. / MONDRAGON KOOP. E. / MONTTE S.L. / MUSEUM CEMENTO REZOLA-K6 GESTIÓN CULTURAL S.L. / OARSOALDEA GARAPE
ORKLI S. COOP / ORTZADAR S.L. / ORTZADAR S.M. / OSAKIDETZA-BERMEOKO OSPITALEA / OSAKIDETZA-BILBO ESKUALDEA / OSAKIDETZA-GAI
REA / OSAKIDETZA-MENDAROKO OSPITALEA / OSAKIDETZA-URIBE ESI / OSAKIDETZA-ZUMARRAGAKO OSPITALEA / OSAKIDETZAKO BARRUA
ORTUARIA DE PASAIA / PESA BIZKAIA / PESALUR, S.A. / PETRA LEKUONA ZAHARREN EGOITZA FUNDAZIOA / PIL-PILEAN KULTURA ELKARTEA
/ SAN JOSE JESUITAK IKASTETXEA / SAN JUAN BOSCO IKASTETXEA / SAN VIATOR IKASTETXEA / SANTA MARINA OSPITALEA - HOSPITAL SANT
A (GERNIKA) / SORALUCE S. COOP. / SPRI, SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATE
OLA / TELESONIC / TINKO EUSKARA ELKARTEA / TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L. / TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M. / TOTOA
ELKARTEA / TXANTXIKU IKASTOLA KOOP E / TXIMELA S.A. / TXIMELETA KIROL ELKARTEA / TXINTA KOOPERATIBA ELKARTEA (GABRIEL ARES
NIBASQ AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO / UPV/EHUKO INFORMATIKA FAKULTATEA / UROLA KOSTAKO HEDABIDEA
EN S.A. / ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA / ZARAUZKO BERRITZEGUNEA - G05 / ZARAUZKO HIRUBUSA, S.L. / ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
S.A. / ZUMALAKARREGI MUSEOA-K6 GESTIÓN CULTURAL S.L. / ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA /

# ZER DA BIKAIN

BIKAIN

**02**

BIKAIN - Euskararen Kalitate Ziurtagiria **Eusko Jaurlaritzak 2008tik ematen duen ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da.** Esparru sozioekonomikoan e**uskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen** du.

*“Kanpoko norbaitek gu ikustea eta aztertzea, eta zertzuk hobekuntza proposamen zituzten entzutea oso ona izan da talde osoarentzat”.*

*“BIKAIN prozesuan urrats asko eman genituen bai euskarari dagokionean, bai pertsonei dagokionean, bai kudeaketa sistemari dagokionean”.*

**ANA URKIZA IBAIBARRIAGA**
Bankoako Giza-baliabideen zuzendaria



## Zer eskaintzen dizu BIKAINek?

Zure erakundeak euskararen erabilera areagotzeko dinamikan badihardu, **kanpoko adituen ekarpen kualifikatuak jasotzeko aukera ematen dizu BIKAINek**, horrela zure entitatearen indarguneak sendotu ahal izango dituzu, zer hobetuak antzeman, eta aurrera egiteko laguntza jaso.

BIKAINek **euskararen presentziaren, erabileraren eta kudeaketaren aldeko dinamika sortuko du zure erakundean**, horrela etengabeko hobekuntza sustatuz.

Halaber, ziurtagiriaren bidez orain arte egin duzuen lanaren eta ahaleginaren aitortza jasoko duzue.

# ZER LORTUKO DU ZURE ERAKUNDEAK

BIKAIN

**03**

01

**EUSKAL KOMUNITATEKO PARTAIDE SENTITZEA**

euskara bermatzen duen komunitateko kide izanda.

02

**ETENGABEKO HOBE-KUNTZA SUSTATZEA**

euskararen presentziaren, erabileraren eta kudeaketaren aldeko dinamikak sortuz.

03

**KONPROMISOA HARTZEA**

euskara zure erakundean zeharlerro modura kokatuz.

04

**EREDUGARRIA IZATEA**

euskaraz lan eginez, inguruneari modu baikor eta aktiboan eraginez.

05

**PRESTIGIOA ETA KALITATEA LORTZEA**

euskara bikaintasunarekin estuki lotuz.



# EBALUAZIO PROZESUA

BIKAIN

**04**

“

*“Cikautxon jakin gura genuen ea euskarari dagokionean nolako egoeran geunden eta BIKAINek ebaluazio horretan lagundu gintuen, kokatuz.”*

*“Enpresa batek argi baldin badu euskara bultzatu gura duela, BIKAIN Ziurtagiriak pauso hori ematen lagunduko dio”.*

**GOTZON JUARISTI LARRINAGA**
Cikautxoko lehendakaria



## Zer ebaluatzen da?

Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotako adierazleak aztertzen dira euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzeko. EMEk bi ardatz ditu:

### Zerbitzu-hizkuntza

Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzeko pertsona fisikoarekin edo administratuarekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean, erabiltzen den hizkuntza. Kanpora begira eskaintzen den hizkuntza.

### Lan-hizkuntza

Erakunde bateko langileek maila formalean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza da, hau da, erakundeko  zereginak eta jarduerak egiteko ahoz eta idatziz erabiltzen dutena: pertsonen kudeaketan, sistemen kudeaketan, komunikazio horizontal eta bertikalean, lan-prestakuntzan, etab.



# Erreferentzia Marko Estandarra

Erreferentzia Marko Estandarrak (EME) bi ardatz ditu, eta lehen mailako 6 elementu ebaluatzen dira.

## 1. ardatza: **Zerbitzu-hizkuntza**

### 01 ERAKUNDEAREN IRUDIA:

- Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak
- Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak
- Ingurune digitala

### 02 BEZEROEKIKO (PERTSONA FISIKOAK) ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK

- Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua/ produktuak eskaintzeko orduan
- Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua/produktuak eskaintzeko orduan

## 2. ardatza: **Lan-hizkuntza**

### 03 BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

- Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
- Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala
- Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala
- Baliabide informatikoak

### 04 PERTSONEN KUDEAKETA

- Pertsonen kudeaketa
- Laneko prestakuntza

### 05 KANPO-HARREMANAK

- Administrazioa
- Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.
- Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.

### 06 KUDEAKETA-SISTEMA

- Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea
- Bezeroak edo herritarrak eta produktua edo zerbitzua: hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko/herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen/zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea
- Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

EBALUAZIO PROZESUA

BIKAIN

04

# Nork har dezake parte BIKAINen?

Kanpo-ebaluazioaren zerbitzua erakunde pribatuek zein publikoek eskatu ahal dute:

## Entitate pribatuak

Entitate pribatuek, osorik edo partzialki, eta sozietate publikoek, baldin eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute.

## Erakunde publikoak

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten honako erakunde publiko hauek: Estatuko Administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta Administrazio instituzionalak: erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek. Horrez, gain, Toki eta Foru Administrazioek eta beren erakunde autonomoek.

*“Edozein ziurtagiri lortzeak lan esfortzu handia dakar beregain, baina lortutako onura guztiagatik gustura gaude eta erakunde oro animatzen dugu, jakina.”*

*“Euskara modu natural eta errazean txertatzen lagundu digu BIKAINek”.*

**MIREIA ARTECHE OLAIZOLA**
Aquariumeko Kudeaketa-sistemen arduraduna





# Zein baldintza bete behar dituzte eskatzaileek?

· Ebaluatu beharreko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar da eta bere jarduera bertan burutu behar dute.

· Ebaluazio-prozesutik kanpo geratzen dira lantoki fisikorik ez duten erakundeak, bai eta gutxienez bi laguneko plantilla ez duten pertsona juridiko nahiz fisikoak.

· Gutxienez langile bat joan beharko da berariaz egingo den prestakuntza-modulura edota moduluetara. Dena den, langile kopuruak zehaztuko du bidali beharreko gutxieneko ebaluatzaile kopurua. Hori nahitaezko baldintza izango da ebaluazio-zerbitzua jaso ahal izateko.

Zure erakundearen izaeraren arabera, publikoa ala pribatua den, baldintzak ezberdinak dira.

## Erakunde pribatuak

· Erakunde eskatzaileak 250 langile baino gehiago baditu, berdintasun-plana egin eta aplikatu beharko du.

## Erakunde publikoak

· Berdintasun-plana egin eta aplikatu behar du.

· Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluen eragin-eremuan sartzen diren herri-administrazioak, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, Justizia Administrazioak eta Ertzaintzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartua eta indarrean izan behar du. Horrekin batera, lanpostu-zerrendan hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezarrita, betiere derrigorrezko indizea eta Euskararen erabilera Normalizatzeko Plana betez.

· Estatuko Administrazioak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana izango du.

· 86/1997 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluen eragin-eremuan ez dauden zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publikoek, zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartua eta indarrean izango dute.

# Nola eskatu ebaluazioa?

BIKAIN Ziurtagiria eskuratu ahal izateko kanpo-ebaluazioa eskatu behar da.

Interesdunek bide elektronikoa erabili behar duzue prozedurako izapide guztiak egiteko.

www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/bikain-ziurtagiria-eskaera/

Eskaera edozein momentutan egin daiteke. Behin hori eginda, prozesua martxan jarriko da.

EBALUAZIO PROZESUA
BIKAIN
04

# Zein lan dakarkio BIKAINek erakundeari?

Plantillako pertsona bat **solaskide** izendatuko du, BIKAIN Idazkaritza Teknikoarekiko harremana bidera dezan prozesu osoan.

Ahal dela, pertsona horrek BIKAINeko **ebaluatzaile** izateko prestakuntza-modulua egingo du, eta Idazkaritza Teknikoak eskatutako erakundea ebaluatu beharko du.

Ebaluazioa eskatu duten erakundeei ebaluazio-prozesuaren hasieran eskaintzen zaien **informazio-bilerara** joan beharko dute. Bertan, prozesuari dagozkion zalantzak argitu ahal izango dituzte erakundeetako ordezkariek.

**Aurretxostena** izeneko dokumentua osatzeko datuak bildu eta izen hori duen dokumentua prestatuko du, erakundeak ebaluaziorako aurkeztu beharreko dokumentua da. Honen helburua ebaluazio aurreko egoeraren berri ematea izango da, ebaluatzaileek erakundea ezagutu dezaten. Hortaz, berealdiko garrantzia du geroko kanpo-ebaluazioa egoki egin dadin. Bi Aurretxosten mota daude hartzaile motaren arabera: eredu bat entitate pribatu eta sozietate publikoentzat, eta beste bat administrazio publikoentzat.

## Aurretxostenak bi atal ditu:

· Erakundearen aurkezpena: erakundearen jarduera, egitura, produktu eta zerbitzuak, bezero motak, bezeroen ibilbidea, etab. azaltzeko dokumentua.

· Autodiagnostikoa: erakundean 2 ardatzetan eta 6 elementuetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren berri emateko dena. Erakundeak Autodiagnostikoa aplikazioaren bidez bete beharko du.

*“BIKAINek lagungarri ugari eman dizkigu hobetzeko eta etengabe hobetzen jarraitzeko”.*

*“Pausoz pauso ziklo bat amaitzean errekonozimendua jasotzea garrantzitsua bezain pozgarria da”.*

**MIKEL ANSOTEGI JAIO**
Aulestiko alkatea



Aurretxostenarekin batera, erakundeak beste dokumentu batzuk bidali ahal izango ditu, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren inguruan informazio gehiago emateko eta dokumentu horiek euskarri elektronikoan bidali beharko ditu, Idazkaritza Teknikoak oniritzia emateko.

Informazio hori guztia jaso eta aztertu ondoren, talde-ebaluatzaileak **erakundea bisitatuko du eta hainbat elkarrizketa egingo ditu**. Erakundearen tamainak, egoitzen sakabanaketak, konplexutasunak edota beste hainbat aldagaik eragina dute kanpo-ebaluazioaren egikeran. Hori horrela, ebaluazio-egunak bat edo bi izango dira, eta salbuespenezko kasuetan hiru egunekoak.

# Ebaluatzaile Kluba

Kanpo-ebaluazioak Ebaluatzaileen Klubeko kideek egiten dituzte, beti ere BIKAIN Idazkaritza Teknikoaren gidaritzapean.

Ebaluatzaileek gai honetarako zehazturiko berariazko prestakuntza-moduluan (edo moduluetan) parte hartu, eta erakunde bat ebaluatu behar dute. Ebaluazioan parte hartzea onartzen duenean, konpromisoa hartzen du bai ebaluatu beharreko erakundearekin, baita bere taldekideekin ere.

Ebaluatzea da euskararen erabilera eta kudeaketarako praktika egokiak ikasteko modurik onena. Hau da BIKAINeko ebaluatzaile izatea eskaintzen dizuna:

· Euskara-planen esperientziari dagokionez, ikasteko bide berri bat

· Euskararen kudeaketan aurreratuak diren erakundeen erremintak bertatik bertara ezagutzeko aukera

· Ebaluazio-taldeko kideen artean, jakintza eta eskarmentua elkarri trukatzeko aukera

**Dagoeneko, BIKAIN Ebaluatzaile Kluba 600dik gora kidek osatzen dute.**

# Nor izan daiteke ebaluatzaile?

· Kanpo-ebaluazioa jaso, eskatzeko asmoa duten edo eskabidea egin duten erakundeetako langileak, alegia zu zeu.

· Erakundeetako profesionalak, euskararen erabilera sustatzeko ardura-lanpostuak dituztenak.

· Kudeaketa Aurreratuaren ereduan adituak direnak.

· Hizkuntza-arloko zerbitzu-enpresetako profesionalak.

· Hizkuntza-normalkuntzarako teknikariak.

· Kudeaketa-sistemetako profesionalak.

**Ebaluatzaileak prestakuntza-modulua egingo du eta Idazkaritza Teknikoak eskatutako erakundea ebaluatu.**

EBALUAZIO PROZESUA
BIKAIN
04

# Nola egiten da ebaluazioa?

Kanpoko talde ebaluatzaile batek zure erakundea ebaluatuko du, indarguneak eta zer hobetuak identifikatuz, EMEn (Erreferentzia Marko Estandarrean) jasotako adierazle bakoitzaren hedadura, sendotasuna eta garapen-maila neurtuz.

Prozesu hau ebaluazio gisa planteatzen da, eta ez auditoria gisa. Honela, ebaluatzailearen lana ez da elementuen ageriko egoera erreparatzera mugatzen; elementu horiei eragiten dieten bestelako alderdiei ere erreparatzen die.

Ebaluazioa ez da prozesuaren bukaera; bertatik jasotako informazioak euskararen presentzian, erabileran eta kudeaketan aurrera egiten lagun diezazuke.

*“Oso prozesu parte-hartzailea izan da, jende askok hartu du parte eta denak oso gogotsu azaldu dira”.*

*“Ekintza-sistematizazioan eta plangintzan jarri dugu indarra. Euskara batzordearen egitura eta funtzionamendua, euskara planaren definizioa eta gauzatzea eta zuzendaritzaren inplikazioa batuz. Honekin guztiarekin euskarari dagokion lekua bermatu diogu”.*

**MARISOL ALZA LASKURAIN**
Bidelaneko Antolakuntza eta Giza-baliabideen zuzendaria



# Zeintzuk dira BIKAIN ziurtagiri mailak?

BIKAIN ebaluazio sistemaren arabera, gehienez 1.000 puntu lor daitezke. Hori horrela, hiru ziurtagiri maila daude:

# Pauso nagusiak:

**01**

· **Informazio-bilerak** egingo dira, prozesuari buruzko informazioa emateko.

**02**

· Zure eskabidea onartua bada, Idazkaritza Teknikoa zurekin harremanetan jarriko da **Aurretxostena** osatzeko.

**03**

· **Gutxienez ebaluatzaile bat izendatuko duzue**, Eusko Jaurlaritzak antolatutako prestakuntzara joateko eta ebaluatzaile aritzeko prestutasuna ere azalduz. Langile kopuruak zehaztuko du prestakuntzara bidali beharreko ebaluatzaile kopurua.

**04**

· Idazkaritza Teknikoak **ebaluatzaile-taldea** proposatuko du zure erakundea ebaluatzeko, eta zuek adostasuna eman behar duzue.

**05**

· **Bisita**: Talde ebaluatzailea zuen erakundera joango da eskuratutako informazioa osatzera. Agendan hitzartutako alderdiak aztertuko dira eta pertsona jakin batzuk elkarrizketatuko dira.

**06**

· Ebaluatzaileek landutako **ebaluazio-txostena jasoko duzue, lortu duzuen puntuazioa barne**. Puntuazio hori behin betikoa izango da.

**07**

· Nahi izanez gero, **kontraste-bilera** egin daiteke, txostenean adierazitako alderdien gaineko azalpen zabalagoa jasotzeko. Esan bezala, txostenean emandako puntuazioa behin betikoa da.

**08**

· Ziurtagiria lortuz gero, BIKAIN Ziurtagiriaren marka egoki erabiltzeko **eskuliburu** bat helaraziko zaizue.

---

**OINARRIZKO MAILA** (Beltza)
200 puntu gutxienez

**TARTEKO MAILA** (Zilarrezkoa)
500 puntu gutxienez

**GOI MAILA** (Urrezkoa)
800 puntu gutxienez

Ziurtagiria lortzeko zehaztutako puntuez gain, indarrean dagoen legediak euskararen alorrean zehazten dituen betebeharrak bete behar dira halabeharrez.

Zure erakundearen izaera publikoa ala pribatua kontuan hartuta, honakoa da ardatz bakoitzean lor daitekeen gehienezko puntuazioa:

**HARTZAILEAK**

| **EME - ARDATZAK** | · Entitate pribatuak<br>· Sozietate publikoak | · EAEko Administrazio orokorra eta instituzionala<br>· Estatuko Administrazioa<br>· Toki eta Foru Administrazioa |
|---|---|---|
| 1. Zerbitzu-hizkuntza | 350 puntu | 200 puntu |
| 2. Lan-hizkuntza | 650 puntu | 800 puntu |

GUZTIRA 1.000 puntu

Bikain
euskararen
kalitate ziurtagiria

# Bikain
## 10 URTE

CERTIFICADO DE CALIDAD
EN LA GESTIÓN
LINGÜÍSTICA BIKAIN

# 10 AÑOS

BIKAIN
**01**

Las empresas vascas han mostrado siempre un carácter innovador y competitivo. Ese aspecto innovador, además, no se ha limitado a renovar los modelos de gestión, los recursos tecnológicos, las herramientas o las infraestructuras. Algunas instituciones u organizaciones han apostado por un modelo propio, trabajando y ofreciendo su imagen, sus productos y servicios en euskera, con la certeza de que ello les reporta un valor añadido, y que es necesario respetar los derechos lingüísticos. Estamos convencidos de que **recibir una valoración externa les ayudará a seguir avanzando** y de que es igualmente importante el reconocimiento público de esta labor, dentro y fuera de la entidad.

Hoy en día, la gestión avanzada es una práctica habitual en el sector socio-económico. Ejemplo de ello es la gestión integradora de los **temas transversales**, tales como la gestión de la calidad, el medio ambiente, la responsabilidad social corporativa, la igualdad de género, la prevención de riesgos laborales o la gestión de la innovación. Actualmente, muchas organizaciones gestionan ya el tema del euskera de una **forma integrada** y BIKAIN se ha sumado a esas nuevas tendencias.

El proyecto BIKAIN comenzó su andadura en 2007 y se implementó por vez primera en 2008. En estos diez años son ya 400 las evaluaciones externas realizadas.

**10 AÑOS**

**10 AÑOS** con BIKAIN.

**10 AÑOS** ayudando a las organizaciones que desean potenciar el uso del euskera.

**10 AÑOS** evaluando la presencia, el uso y la gestión del euskera en las entidades.

**10 AÑOS** reconociendo el trabajo en favor del euskera realizado en el seno de las organizaciones.

**10 AÑOS** asumiendo los retos que ha vivido el euskera

**10 AÑOS** A TU LADO, PARA QUE EL EUSKERA SIGA ADELANTE!

10

10 AÑOS
BIKAIN
01

# Una comunidad que crece

**2008**
**31** certificados
-
NIVEL BÁSICO: 7
NIVEL INTERMEDIO: 17
NIVEL ALTO: 7

**2009**
**27** certificados
-
NIVEL BÁSICO: 6
NIVEL INTERMEDIO: 9
NIVEL ALTO: 12

**2010**
**20** certificados
-
NIVEL BÁSICO: 5
NIVEL INTERMEDIO: 7
NIVEL ALTO: 8

**2011**
**20** certificados
-
NIVEL BÁSICO: 7
NIVEL INTERMEDIO: 7
NIVEL ALTO: 6

**2012**
**29** certificados
-
NIVEL BÁSICO: 7
NIVEL INTERMEDIO: 13
NIVEL ALTO: 9

ERSO... ...E EGOITZ
USKALTEGIA, ... ...ITZA SAILA (EB
IARIEN ELKARGO O... ...TEC / CENTRO KURSA
O ORDEZKARITZA) / COLEGIO ... ...ES SUKIA ERAIKUNTZAK S.A
EBAGOIENEKO ERAKUNDE SANITARIO IN... ...DIGITALAK / DOBERA EUSKARA ELK
EZULO ALDIZKARIA / DONOSTIALDEA ERAKUNDE SANITARIO ... ...IKUSENTZUNEZKOAK S.A. / EDE FUNDAZIOA / 
EKIALDEBUS S.L. / EKIN AUTOAK S.A.L. / EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOA / ELAY / ELDUAIEN HIZKUNTZA ESKOLA / ELEKA INGENIARITZA L
KASTETXEA / ELKARGI E.G.E. (DONOSTIAKO EGOITZA) / ELORRIOKO TXINTXIRRI IKASTOLA / EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA / EMUN KOOP. E.
LKARTEA (AMARAKO BULEGOA ETA EDUARDO ZUGAZA FORMAZIO-ZENTROA) / ERROITZ S.L. / ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO-
USKARAZ KOOP. (AEK) / EUSKO IKASKUNTZAREN ASMOZ FUNDAZIOA / EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO / EUSKO TRENBIDEAK
DERLAN POWERTRAIN / FAGOR EDERLAN, S.COOP (BURDINAZKO PORTAMANGETAK) / FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS KOOP. E. (HOTZAREN
